

- Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?
 - Gure zerbitzuak funtziona dezan, bere funtsezko jarduerak plataforma edo sareko jarduerak dira hala ere, arazoak konpontzen zentratzen den plataforma da. Hain zuzen ere, gazteek ikasketekin dituzten arazoak konpontzen lagunduko du. Sareko jarduera ere oinarritzkoa da gure proiektua aurrera eramateko, asko laguntzen duelako webgunea txukuna eta ulergarria izaten.

Gure zerbitzuak ondo funtziona dezan garrantzitsua iruditzen zaigu analisi bat egitea, azkenean, beste zerbitzu edo enpresekin edukiko duen lehia guk "irabazi" ahal izateko eta guk ere kontuan izateko gure zerbitzuan zer hobetu dezakegun indarguneei eta ahulguneei abantaila ateratzen.

Amia analisisia: bi taldetan bananduko dugu, barne jatorrikoak eta kanpo jatorrikoak. Barne jatorrian, gure zerbitzuaren sendotasunak eta ahulguneak azalduko ditugu eta kanpo jatorrian berriz, zerbitzuaren aukerak eta mehatsuak esango ditugu.

-Indarguneak: Gure zerbitzuaren indargunea izango zen originaltasuna, erabilgarritasuna eta ekonomi baxuko pertsonak eta gazteak kontuan hartzen ditugula.

-Ahulguneak: aplikazio honen ahulgunea erabilera izango litzateke, batzuentzat zaila izan baitaiteke ulertzea nola erabiltzen den. Horregatik, hain garrantzi handia ematen diogu edozein arazo tekniko konpontzen lagunduko digun informatikari bat egoteari.

-Aukerak: aplikazio honek, batez ere, erabilgarria izango da azterketa data garrantzitsuak gerturatzeko direnean, hala nola urtarilekoak unibertsitateko ikasleentzat edo selektibitatekoak batxilergoko bigarren mailakoentzat. Gainera, ez dago urtaro jakin batean lorpen gutxiago egongo den urtarorik, aplikazio hau internazionala izango delako, eta eskola- ordutegiak aldatu egiten dira herrialdearen arabera.

-Mehatsuak: nahiz eta aplikazioko klaseak merkeak izan beti egongo dira pertsonak nahiago izango dutenak eta segurtasun handiagoa izango dutenak pertsona heldu batekin pertsona gazte batekin baino. Horrela, gure mehats handiegia izango lirateke akademiak.